

LITERATURA. Donostian omentzen ari diren idazlea ipuin laburren idazketan «maisu» dela esan zuen hizlariak

Bernardo Atxaga: «Deslekua sorleku bihurtu zuen Martin Ugaldek»

Atzoko hitzaldiarekin jarri ziren abian 'Martin Ugaldek bere herria helburu' jardunaldiak

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Martin Ugalde «kontaera laburrean maisu» dela esanez hasi zuen Bernardo Atxagak Martin Ugalderi buruz atzo, Donostian, egin zuen hitzaldia. «Martin Ugalde ez da nobelagile makala, baina oso dohain finekoa da batez ere kontaera laburretan», Atxagaren iritziz. Horretaz «aski berandu» konturatu dela aitortu zuen Atxagak. Ugaldek idatzitako lan bat —*Zementoa-ren ipuina* izenekoa— euskaturik du Atxagak, eta atzoko hitzaldiaren amaieran itzulpen hori irakurtzeko asmoa zuen, baina azkenean, denbora faltaz, ez zuen hala egiterik izan.

Hitzaldia «idazle eta irakurle gisa» eman zuen Atxagak, Gipuzkoako Aldundiko Jargoi Aretoan, Martin Ugalde idazle, kazetari eta EGUNKARIAKO ohorezko lehendakariari buruz atzo hasi eta ostirala bitarte, Hamai-ka Bide elkarteak antolatuturik egiten ari den kongresuan.

Ugalderen obraren irakurketatik abiatuturik, erbestea hartu zuen mintzagai Atxagak. Biblia-ko 137. Salmoan eta beste hainbat idazlanetan, erbestearen eta gisako egoera tamalgarrien ondorioetako bat mututasuna izaten dela aipatzen dela ekarri zuen gogora Atxagak, baina horrelako kasurik gehienetan idazleak idatzi egin izan duela.

«Ugalderen kasuan, desterruak eragindako etenak ez zion mututasuna ekarri, hitza bai-zik», adierazi zuen Atxagak. «Ugaldek deslekua sorleku bihurtu zuen. Eta ez bakarrik sortu egin zuelako: sortzen duena, idazten duena, hazi egiten da, aldatu egiten da, gehienetan onerako: sortu egiten da».

Ugalde adinik okerrean erbestera zela ekarri zuen gogora Atxagak, ez baitzen leku berrira arazorik gabe egokitze-ko bezain gazte eta ezta leku berrira sorlekuko ohiturei lotuta sorlekuan bezala bizi ahal izateko bezain zahar.

«Ugalderen obran mundu askotako pertsonaiak daude», azaldu zuen Atxagak aurrerago. «Kaxa handiko idazlea da. Baina, hala ere, han eta hemen le-rrero batzuk azpimarratzen dira ia beti, euskaldunok gehien behar ditugunak». Ugalderen lana ez dela behar bezain ondo jaso erakusten du horrek, Atxagaren ustez, eta hori euskal literatu-



GARI GARAIALDE
Bernardo Atxaga, atzoko hitzaldiko une batean.



Erakusketa interaktiboa zabalik KM kulturunean

Martin Ugalderen bizitzaren eta obraren berri modu atsegin eta erakargarrian ematen duen erakusketa interaktiboa zabaldu zuten atzo, Donostiako Koldo Mitxelena kulturune-ko atariko aretoan. Koldo Izagirreraren testu bat du oinarri erakus-

ketak, eta teknika informatikoen bidez, erraztasun handiak eskaintzen dizkio bisitariari Ugalderi buruzko jakingarrietan hautaketa egiteko. Horretarako, Ugaldek arlo askotan egin izan duela lan hartu dute aintzat erakusketa diseinatu dutenek.

rak, orain artean behintzat, behar bezalako «erakunde kultur- alik edo sistemarik» izan ez duelako gertatzen da.

Illo horretatik, euskal literaturaren «erresonantzia kaxa» handitu beharra aldarrikatu

zuen Atxagak: «Omenaldiak ondo badaude ere, une bateko txori baino ez dira. Martin Ugaldek eta beste idazle askok orain arte izan duguna baino erresonantzia kaxa handiagoa merezi dute».

Ugaldek igorritako gutuna

Gaitz baten ondorioz, Martin Ugalde ez zen atzoko ekitaldian izan, baina hark idatzitako testu bat irakurri zuen Xabier Apaolaza Hamaika Bide elkarte-ko ki-

ESANAK

BERNARDO ATXAGA
(Idazlea)

«Martin Ugalde ez da nobelagile makala, baina oso dohain finekoa da batez ere kontaera laburretan»

«Bere obra aztertuz gero, mundu askotako pertsonaiak ageri dira. Kaxa handiko idazlea da»

«Orain arte izan duguna baino erresonantzia kaxa handiagoa merezi dute Ugaldek eta beste idazle askok»

deak. «Kongresu honetako jar- duera guztietan pertsonalki azaltzea izango zen nire atsegin handiena», zioen Ugalderen gutunak.

Gutunaren bidez, esker ona agertu zion Ugaldek jende askori, motibo bat baino gehiagorengatik, Eugenio Arregiri, Inazio Zubeldiari, Juan Mari Zabalarri, Joxemi Zumalaberri, Eduardo Txillidari, Iñaki Uriari, Joan Mari Torrealdeari, Xabier Mendiguren Elizegiri eta Elkarlanean argitaletxeko taldeari, Fermin Olaskoagari, Mikel Zuazabeitiari, Manu Labaieni, Mariaje Zapiari...

«Luze joko luke jaso ditudan omenaldi guztiak aipatu eta eskertzea», zioen, amaieran, Ugalderen gutunak, «baina derrigorrezkoa zait EHUK eman zidan *honoris causa* doktoretza gogoraraztea, hain barnean ukitu baininduen». Andoain eta Hondarribia herrie-kin ere zortetan sentitzen da Ugalde.

Atxaga eta Apaolazaz gain, jardunaldiak babestu dituzten erakundeetako ordezkariak ere mintzatu ziren ekitaldian: Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua; Luis Bandres, Gipuzkoako Aldundi-ko Kultura diputatua; Jose Luis Zinkunegi, Deustuko Unibertsitateko errektoreordea; eta Jose Antonio Barandiaran, Andoain-ko alkatea.

GAURKO EGITARAUA

10:00: Arantza Ame- zaga, Xabier Leizaola, Iñaki Zubizarreta eta Miguel Salvador-en hitzaldia. EHUren Filosofia fakultateko Areto Nagusian (Donostiako Ibaeta auzoan).

19:00: Kepa de Derte- ano idazle erbestera- ren hitzaldia. Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.